

# Ikastolako Lehendakaria, berri emaile

Kontseilu Errektoreak egindako azken bileraren berri doakizue.

Os informo de la última reunión del Consejo Rector.

## KONTSEILU ERREKTOREA 2023-11-23

**"ARIZARI" ELKARTEAREN SORRERA. AZKEN PAUSOAK. ESTATUTUAK ETA ERATZE AKTA.**

"Arizari" PRO egitasmoko elkartearen estatutuak jada erregistroan daude eta behin haiek onartuta landuko da elkarte eta ikastolaren arteko hitzarmena. Eratze akta ere aurkeztu da.

---

**ARIZMENDI IKASTOLAKO HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN MARKOA.**

ARIZMENDI ikastolak aniztasunari erantzuteko planteamendua egin du. Hezkuntza inklusiboaren markoa eta bere barne eranskinak Arrate Imaz lankideak landu ditu. Kontseilu Errektorean Arratek berak aurkeztu duen lanaren gaineko ekarpenak jasotzen ari gara orientazio sailean eta ikastolako gainontzeko egitasmoetan.

---

**AURREKONTUA 2023-2024 IKASTURTEAN**

Urriko proposamenean aurkeztutako aurrekontua unitateetako banaketekin osatu da eta horren arabera egokitu da kontu saila. Aurrekontuan egindako egokitzapenak onetsi dira eta 2023-24 ikasturteko aurrekontua onartu da aho batez.

---

**BILTZAR PRESTATZAILEA.**

Biltzar Prestatzailearen deialdi proposamena aurkeztu da eta aho batez onetsi da. 2023ko abenduaren 19an egingo da Biltzar Prestatzailea Arimazubi guneko LABtokian. Biltzarrean Ikastolako Zuzendari diren Illart Azkarate eta Mireia Muruamendiarazek "Hurrengo 20 urteetan ere IKASTOLA ELKARREKIN" saioa gidatuko dute. Kontseilu Errektoreak Ikastolako guraso eta kolaboratzaileak saioan parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

---

**HIRUHILABETE BATEKO ESZEDENTZIA ESKAERA.**

Profesional batek egin duen eszedentzia eskaera onestea erabaki da aho batez.

## CONSEJO RECTOR 2023-11-23

**CREACIÓN DE LA ASOCIACIÓN "ARIZARI". ÚLTIMOS PASOS. ESTATUTOS Y ACTA DE CONSTITUCIÓN.**

Los estatutos de la asociación del proyecto "Arizari" de PRO ya están en el registro y una vez aprobados se trabajará el convenio entre asociación e ikastola. Se ha presentado el acta de constitución.

---

**MARCO DE EDUCACIÓN INCLUSIVA DE ARIZMENDI IKASTOLA.**

ARIZMENDI ikastola ha realizado un planteamiento de respuesta a la diversidad. El marco de la educación inclusiva y sus anexos internos han sido elaborados por Arrate Imaz. Estamos recogiendo en el departamento de orientación y en el resto de etapas de la ikastola aportaciones sobre el trabajo que ha sido presentado por Arrate también en el Consejo Rector.

---

**PRESUPUESTO CURSO 2023-2024**

El presupuesto presentado en la propuesta de octubre se ha completado con las distribuciones en las etapas y en función de ello se han adecuado las partidas. Se aprueban las modificaciones presupuestarias y se aprueba por unanimidad el presupuesto del curso 2023-24.

---

**ASAMBLEA PREPARATORIA.**

Se presenta la propuesta de convocatoria de la Asamblea Preparatoria, que es aprobada por unanimidad. El 19 de diciembre de 2023 se celebrará en el "LABtokia" de Arimazubi. En la junta, la dirección general de la Ikastola, Illart Azkarate y Mireia Muruamendiaraz, dirigirá la sesión -En los próximos 20 años "IKASTOLA ELKARREKIN"-. El Consejo Rector invita a todal las familias y colaboradores de la Ikastola a participar en la sesión.

---

**SOLICITUD DE EXCEDENCIA TRIMESTRAL.**

Se acuerda por unanimidad aprobar la solicitud de excedencia formulada por una profesional.

**BESTERIK**

- **Kontseilu Soziala.**

Azaroko kontseilu sozialean landutako gaien deskagua egin du Leire Aranak, lehendakari ordeak, horien artean, Kontseilu Sozialeko ordezkari berrien bozketa antolatu dela eta BAZARA kontseiluan Kontseilu Sozialeko kide bat egotea adostu dela.

- **MONDRAGON.**

"Politika sozioenpresariala"ri egingo dizkikiogun ekarpenak-proposamenak aurkeztu ditu Leire Aranak. Ekarpen hauek Ezagutza Dibisio eratu berrian landuko dira MONDRAGONera bideratzeko.

- **Ikastolen Elkartea.**

Ikastolen Elkartean, jaiotza tasaren beherakada ikusirik, lerro bateko ikastola batzuen egoeraren lanketarako lantaldea jarriko da martxan. Ekarpenak eskatuko dizkigute, ezaugarri horiek dituzten guneak gurean ere badaudelako.
2023-24 ikasturtea amaiera aldera Ikastolen VII. Batzarra burutuko dela aurrikusten da. Ikastolek etorkizunera begira dituzten erronkak zehaztea izango du helburu nagusi. Ikasturtean zehar egingo den prozesuan eskualdekako bilerak egongo dira.
EAEko Hezkuntza Legean ez dituzte Ikastolen Elkarteak egindako ekarpen gehienak kontuan hartu, balorazio sakonago bat bideratuko den arren, galdutako aukera bat bezala ikusi da.

-**Greba araudia.**

Azaroaren 30eko greban eskaintzen diren zerbitzu minimoen gaineko hausnarketa egin da eta gaia Partaidetza Sozialaren Organora eta Kontseilu Sozialera bideratuko da lanketarako.

**OTROS**

- **Consejo Social**.

La Vicelehendakari ha expuesto los temas tratados en la última reunión del Consejo Social entre los que se ha organizado la votación de los nuevos representantes del Consejo Social y se ha acordado la presencia de un miembro del Consejo Social en "BAZARA kontseilua".

- **MONDRAGON**.

Leire Arana ha presentado las propuestas de aportaciones a la "política socioempresarial". Estas aportaciones se trabajarán en la recién constituida División de Conocimiento para después llevarlas a MONDRAGON.

- **Ikastolen Elkartea.**

En "Ikastolen Elkartea", ante el descenso de la natalidad, se pondrá en marcha un grupo de trabajo para trabajar la situación de algunas ikastolas de una línea. Nos van a pedir aportaciones porque en Arizmendi también tenemos un centro de esas características.
Se celebrará "VII. Ikastolen Batzarra" a finales del curso 2023-24. Su objetivo principal será definir los retos de futuro de las ikastolas. En el proceso a desarrollar a lo largo del curso tendremos reuniones zonales.
En la Ley de Educación de la CAV no se han tenido en cuenta la mayor parte de las aportaciones realizadas por "Ikastolen Elkartea", aunque se va a proceder a una valoración más profunda, se ha visto como una oportunidad perdida.

**-Normativa de huelga.**

Se ha reflexionado sobre los servicios mínimos que se ofrecen en la huelga del 30 de noviembre y el tema se trabajará en el Órgano de Participación Social y el Consejo Social.

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

**ABENDUA: data nagusiak**

**2023/12/14 Kontseilu Errektorea**
**2023/12/19 Biltzar Prestatzailea**

arizmendi ikastola